

"ETXEGIÑA"

BERTSO-PAPER LEHIAKETA

1981-1990



ELGOIBARKO IZARRA - BERTSO ESKOLA

SARRERA

Liburu gastiak sarrera izaten dutela eta, hori ere berea topatu behar. Eta zera izango hobeak bere abostan erantzungo hitzak baino.

Elgoibaratar asko izango da gizon horien izena eta izama ezagutu ez dutenak, herriagatik irakurtzen eta bertsoaziragatik berehala egia zuten lanaren berriz izango ez dutenak. Beraie eskuzko nabe diru-lireru hitzak.

Elgoibaratar asko izango da gizon horien izena eta izama ezagutu ez dutenak, herriagatik irakurtzen eta bertsoaziragatik berehala egia zuten lanaren berriz izango ez dutenak. Beraie eskuzko nabe diru-lireru hitzak.

"ETXEGIÑA"

BERTSO-PAPER LEHIAKETA

1981-1990

E. Juan Kruze Urquien, nire osaba, bertsoariak zen. Bigatan, abertzale jainaldiaren erdian bertsoetan Kepa Zabentxakia, nik bertsoariak irazteko, etxeko eragin hori garrantzi handikoa da. dudarik gabe, baina bertsoak ere behar da. Gaztetan bertso giroan ibili eta bertsoetan hasiakin erantsen dio bertsoari bultzatzen handiena.

GALDERA. Nola hasi zinen bertsoetan?

E. 14 urterekin zabalaren eta onene leontura belduk modatzera. Gero, 17 urte jabea hasita, Santa Ageda jendaldietan bertso jurtak eman izan ditut inguruko herrietan. Hiberren 4 aldiz eta Epnuan 3 aldiz. Besteak Elgoibarren.

GALDERA. Zere bertsoerik eztabaena "Salber" dugu, dudarik gabe... Nola eta zera motibatu auzua da berori?

E. Santa Ageda kantuzeko obitura aspaldikoa dugu Etxeko Herria, baina obitura da baita ere, uretan burrian nurbait hil den abost, kantaren ordez erretzetzen. Kantaren auzegina ez gaitzeko amara nituen bertso apropos batzuk. Horize da

(1) Hau ekarri izaten da. Beraz, bertsoak jatu behar da.

SARRERA

Liburu guztiek sarrera izaten dutela eta, honi ere berea topatu behar. Eta zein izango hobe bere ahotan esandako hitzak baino.

Elgoibartar asko izango da gizon honen izena eta izana ezagutu ez dutenak, herriगतिक orokorrean eta bertsolaritzagatik bereziki egin zuen lanaren berri izango ez dutenak. Beraiei eskeini nahi dizkiegu hitzok.

Etxegiña ezagutzeko aukera izan genuenok berriz, zorionekoak benetan, gizon honek emandako argia ez bait du denborak itzaliko¹. "ETXEGIÑA". 1989 urteko urriaren 11ean jaio nintzen Ermuan. Nire aitita etxegiña zen eta berdin nire aita eta osaba bat ere. Hortik datorkit izena.

GALDERA. Nondik jaso duzu bertsozaletasun hori?

E. Juan Kruz Uriguen, nire osaba, bertsolaria zen. Elgetan, abertzale jaialdi baten, entzun nuen bertsoan Kepa Enbeitarekin, nik 14 urte nituenean. Bertsolari izateko, etxeko eragin hori garrantzi handikoa da, dudarik gabe, baina berezkoa ere behar da. Gaztetan bertso giroan ibili eta bertsoan hasteak ematen dio bertsolariari bultzadarik handiena.

GALDERA. Nola hasi zinen bertsoan?

E. 14 urterekin zaletzen eta neure kontura batzuk modatzen. Gero, 17 urte nituela hasita, Santa Ageda irtenaldietan bertso jarriak eman izan ditut inguruko herrietan. Eibarren 4 aldiz eta Ermuan 3 aldiz. Besteak Elgoibarren.

GALDERA. Zure bertsoetatik entzunena "Salbea" dugu, dudarik gabe... Noiz eta zein motiboz sortua da berori?

E. Santa Agedao kantatzeko ohitura aspaldikoa dugu Euskal Herrian, baina ohitura da baita ere, urtearen barruan norbait hil den atetan, kantuaren orde ez erreztatzea. Kantuaren atsegina ez galtzeko asmatu nituen bertso apropos batzuk. Horixe da

(1) Hau elkarrizketaren haser da. Berez, bereizturik joan behar du.

“Salbea”. Ermuan, 1915. urtean asmatu eta abestu nituen lehenengoz 17 urte nituelarik.

GALDERA. Noiztik bizi zara Elgoibarren?

E. 1924. urtean “Gabilondora” etorri nintzen lanera Eibartik. Gero, “Sigman” jardun izan dut.

GALDERA. Bertsolarien txapelketa eta bestelako saioetan parte hartu al duzu inoiz?

E. Bai. Lau txapelketetan parte hartu dut. Lehenengoan, 2. postua lortu nuen eta bigarrenean 1go postua.

GALDERA. Badakigu lehenago ere egin izan dizutela omenaldirik. Non eta noiz?

E. Bai, zalea ez banaiz ere egin dizkidate batzuk. 1961. urtean, Ermuko nJan baietzo kuadrilak, 1962an Elgoibarko herriak eta oraintsu, Santa Ageda taldekoek ere egin didate. Azkenik, orain dela gutxi, Donostian 75 urtetatik gorako bertsolariei egin zitzaien omenaldian ere, hantxe nengoen.

1981. Martxoak 27

Barkatuko al digu “Etxegiñak” guk ere omenaldi txiki baina sentikor hau egiten badiogu?

Baiezkoan gaude, egin zenuenaren ordain txiki bat besterik ez da ta.

ELGOIBARKO IZARRA/BERTSO ESKOLA



GERNIKAKO ARBOLA
LURRETIK EGINA,
BESTE BAT EZIN BILAU
HALAKO BERDINA.
NERETZAKO MUNDUAN
HURA DA HANDINA,
HAREN JARRAITZAILEAK
GUZTIOK BAGINA.

“Etxegiña”

OHARRA:

Liburuska honetan hamar urte hauetako bertso sarituak bildu ditugu.

Ez dugu izan denak argitaratzerik, zenbait urtetako materiala aldendu egin bait zaigu. Izan ere, Bertso Eskola tokiz aldatu da urte-en buruan, artxiboa ere esku askotatik pasa delarik.

Dena den, egokia iruditzen zaigu gordetako lanez liburuska hau burutzea.

Eskerrak parte hartu duzuten guztioi eta ea denon gustokoa suertatzen den.

BERTSO ESKOLA



I. "ETXEGIÑA" BERTSO-PAPER LEHIAKETA (1981)

I. MAILAN

- Txapelduna: ENDIKA IRIGOIEN
- Aipamen bereziak: ANE ZABALA
ABEL IRIZAR
MIRARI ASTIGARRAGA
JON PELI URIGUEN

II. MAILAN

- Txapelduna: AINTZANE IRIONDO
- Aipamen bereziak: ALIZIA TXURRUKA
BEATRIZ ORTUETA
IÑAKI KORTABITARTE
NEREA LARIZ

III. MAILAN

- Txapelduna: MONTSERRAT ARREGI

IV. MAILAN

- Txapelduna: KARLOS AGIRRE
- Aipamen berezia: ANDRES ALBERDI
KARMELO ALTZIBAR

TABERNA

DOINUA: "XARMANGARRIA"

MOSKORRA

I

Hi kamarero hori
etor hadi hona
ta emaniezaidak
baso ardo ona
diruaz ez kezkatu
ez da zoriona
ez pentsa eta ez duda
ta eman gizona.

III

Zu izaten bazara
bai kamareroa
ni izan naiz Erroman
beti Aita Santua
zuk hutsikan daukazu
hor goiko burua
utzi berriketari
ta eman ardua.

V

Ekar ezak ardoa
denentzat pakea
jadanik atera zait
burutikan kea
nik badakit naizela
bai ardo zalea
baina apreziatzen dut
burrukako artea.

KAMAREROA

II

Hi horko mozkor hori
hemen ez da ardorik
baina sobran badago
gizon moskortirik
ez da etorri behar
inor ere goitik
esateko nolako
mozkorra daukak hik.

IV

Nazkagarri ta zikin
baita iguingarri
ta kalean jarri
joan hadi hemendik
ardoa edan eta
behioeren egarri
hurrengokoan behintzat
dirua ekarri.

VI

Emangoizut ardoa
ez beldurragaitik
taberna honetatik
joatekotan baizik
nik eztabaidatzeko
ez bait dut gogorik
joan hadi mesedez
lehengoko bidetik.

Egilea: ENDIKA IRIGOIEN
Maila: I. MAILA (12 urte artekoa)

IKASTOLAKO GELA NAGUSIARI LAU BERTSO

DOINUA: "PASAIKO PLAZATIK"

I

Ikastolan gabiltza
goiz ta arratsaldean
hogeitahamalu gera
gela nagusian
pipar egiten degu
aldegun guztian
konturatuko al gera
egunen batian.

II

Asko ikasi behar
ta nik gogo gutxi
aspalditik burua
ezin dot nik hezi
maisuegandik gabiltz
gu beti ihesi
kalian ibiltzeko
prest gaude gu beti.

III

Nik ez daukat zenbaitek
duen beste buru
nere inguruan ez da
hainbeste liburu
ni baino hobeagoak
dabiltza inguru
gaurko honetan ere
azkena seguru.

IV

Alfonso, Inasio
Beni ta Kristina,
Andres, Iñaki, Sebas
Regina ta Ana.
Bederatzi hauekin
osatzen da dena
aurten bukatzen degu
azkeneko lana.

Egilea: AINTZANE IRIONDO
Maila: 2. MAILA (14 urte artekoa)

GERMAN IRIGUEN "ETXEGIÑARI"

DOINUA: "LORIAK UDAN"

I

Euskal Herriko zuhaitz zaharra
bizirik gizaldietan
naiz Nafarroan eta Lapurdin
naiz Arabako aldetan,
bai Gipuzkoan edo Bizkaian,
Euskadi bait da denetan
kimu berriak emanez dago
udaberriko loretan.

II

Euskal-arnasak berotu zuen
Bizkaiko Ermu-herria
han egun batez zuhaitz hortatik
giza arnasa kristau fedean
sortu zen kimu berria
sendoturik oinarria
ikasi zuen Euskadi zela
Euskaldunen aberria.

III

Giza-bidean lerroturikan
heziketaren radatza
etxetik eta elizatikan
edozki zuen arnasa:
BIZITZA ETZEN HAIN EROSOA
bizimodua, bai, latza,
ta-txori antzo bertso abestiz
alaitzen zuen baratza.

IV

Euskal Herria baratza bat da
gizaldi-zehar egina
ildo beretik etorri arren
emaitzetan ezberdina
Ermun loretu kimu berria
Bizkaitik dugu aldegin
ta Elgoibarren etxe berrian
jartzen zaigu "ETXEGIÑA".

V

Bizkai-baratzen, alai ta gazte,
abesten zuen txoria
etzen ixildu, aldatu arren
toki berrira kabia;
Bizkaikoari erantsiz hemen
Gipuzkoako haria
apainagoa gerta zitzaigun
oraingo bertsolaria.

VI

Txori alaia, ixildu gabe
kale ta mendi kantari,
elizan eta lagunartean
itxaropen abeslari:
"ETXEGIÑA" du izen-goiti ta
badagokio berari,
berritasuna eman bait dio
euskal-etxe zaharrari.

VII

Eskerrikasko, German, laguna,
eskerrak mila bihotzez,
zure izena goretzi nahi dut
nere abesti apalez:
gure herriko zuhaitz zaharra
kimu-berritan da lorez
arnas berriak berotu du-ta
zure txertoaren bidez.

VIII

Izango dira kimu berriak,
izango dira gazteak,
zuk ereindako hazia ari da
ematen gaurko loreak:
"ETXEGIÑAREN" zimendu lanak
babesten ditu abeak,
ez du lur-joko zuk maite duzun
Euskal Herriko etxeak.



Egilea: KARLOS AGIRRE
Maila: 4. MAILA (Nagusiak)

IX

Giro gaiztoak, laguntza ezak
hamaika txoritxo hil du;
gure munduko zurrunbiloak
ditu irentsi ta amildu
horregatikan, German, etzaitez
zure kantuan ixildu
zure ondoan txori berriak
behar dituzu zuk bildu.

X

Euskal Herria euskara gabe
ezin daiteke ulertu,
bainan euskara bertso ta olerkiz
guk behar dugu edertu;
zure bizitzan bi gauza horiek
zuk ez dituzu baztertu:
ZURE ONDOREN HEMEN
GAUZKAZU
HORTAN JARRAITZEKO
GERTU.

I. "ETXEGIÑA"

BERTSO-PAPER LEHIAKETA (1982)

I. MAILAN

— Txapelduna: GARBIÑE GOROSTIAGA
— Aipamen bereziak: ION PELI URIGUEN
ABEL IRIZAR
ENDIKA IRIGOIEN

II. MAILAN

— Txapelduna: MIREN IRIONDO

III. MAILAN

— Txapelduna: IÑAKI GOROSABEL
— Aipamen bereziak: NEREA LARIZ
ALBERTO ANSUATEGI

IV. MAILAN

— Txapelduna: ION SARASUA
— Aipamen bereziak: JUAN LOIOLA "LASALDE"
JUAN GARZIA GARMENDIA

LARROSA EDER

DOINUA: "USO TXURI POLIT BAT"

Neguko bukaeran
jaio zen larrosa,
larrosatxo polita
ta oso airosa.
Argitu zen eguna
baita ere goiza,
berak ekarri zuen
herritxora poza.

Negua etorri ta
hotza zan kanpoan,
zelaia edurrakin
berak zun alboan.
Bufanda hartu eta
jarri zun lepoan,
ordu txarra heldu zen
ta hiltzen zihoan.

Egilea: GARBIÑE GOROSTIAGA
Maila: I. MAILA (12 urte artekoa)

Ederra oso ederra
larrosa guria,
behar zuena zuen
baita ere euria.
Bere kolorea zen
berde ta gorria,
lagun handia zuen
eguzki horia.

MALVINAS ETA INGURUKOAK

DOINUA: "MUTIL KOXKOR BAT"

I

Atlantikoan gerra omen da
Argentinako uretan,
milaka gizon burrukan gogor
Malvinaseko irletan.
Argentinarrak eta ingelesak
ez dira ari txantxetan;
etsaia bistan agertuz gero
bizkortasuna hanketan,
hurbiltzen bada tiroa bota
zeruan bego paketan.

II

Orain artean beti izan da
Malvinas irla txiropa,
aitzaki ona aurkitu dute
sutan jartzeko giroa.
Ikusiezina omen zegoen
ambientea beroa,
gurea dela, zuena dela
dago jendea eroa
pake arloko etsaminean
merezi dute zeroa.

III

Azken mendetan ingelesena
izan duten lur apurra
sorreratikan argentinarra,
beraz bestea lapurra
ingelesentzat hala ta guztiz
da guzti hori gezurra;
beraiengatik zutitu zuten
hango itxura makurra,
ez da erraza igertzen ia
norena egi ziurra.

IV

Terko galantak, aldrebes hutsak
gorago bizi direnak
mundua hala, haiek honela
beti egingo dutenak.
Azken denbora larri honetan
pasatu dira egunak
zuek ezer ez, haiek berdina
lotsagarria gizonak,
Mugitu behar Thatcher atsoak
Loreak eta Komunak.

V

Argentinarek Malvinas dute
berrea behintzat oraindik,
berri hau dela jendea dago
alde denetan txit pozik.
Baina jendea alerta dago
inork ere ez du beldurrik,
denek dakite zer gertatzen den
ez dago esan beharrik,
gerra baletor denek gudatu
salbaje batzuk eginik.

VI

Biren artean da gerra baina
hirugarrena ageri,
Reangandarrak denean dira
gose askoko azeri
Muturra sartu, problema ekarri
egin didate bai neri
berdina egingo haiek han ere,
bostehun mila komeri,
azken batean ixil ixilik
USA-k kenduko bieci.

VII

Momentuz behintzat arriskurik ez
problema gabe herria,
etor daiteke gerotxoago
momentu oso larria.

Malvinaseko tontokeriak
jarri du argi gorria,
askorik gabe etor daiteke
guk nahi ez dugun berria,
mundu osoa gerra batetan,
Agur mundutxo, irria!!!

Egilea: IÑAKI GOROSABEL
Maila: 3. MAILA (15 urte artekoa)

EUSKARA ETA KIROLAK

DOINUA: "ANTON ETA MARIA"

I

Bertso batzuk kirol ta
euskararentzako
ta ez alperrikako
alabantzarako
iritzi bat jakin nahi
duenarentzako
azaldu nahi nuke zer
diran niretzako
hamasei urtetako
mutil batentzako.

II

Mundu honetan gabiltzan
gizakume denak
zerbaitekin beteta
dauzkagu barrenak,
kirola ta euskara
dira nere senak
nere izaeraren
barnean daudenak,
nere izpiritua
osatzen dutenak.

III

Euskera dago nere
izaerarekin,
nere jaiotzatikan
euskeraz det egin,
ta bera gordetzeko
saiatu ahalegin
euskeraz pentsatzen det
euskeraz hitzegin,
hargatik ez diot nahi
sekula hutsegin.

IV

Nik kirolarekiko
dedan maitasunez,
ohartuko zarete
bertsoak entzunez
nahiz honatan betea ez
izan gaitasunez
denbora atseginez,
betetzen digunez,
gorputza berriz sasoi
eta osasunez.

V

Hobe dugu kirolak
egiten hastea
honen helburua ez
da irabaztea
baizik gure gorputza
hezi ta haztea
berdina egitera
bultzatuz bestea
gure kultura zein dan
adieraztea.

VI

Arrazoi bat gazteok
kirolzaletzeko
gaztedia geldirik
gaur ez usteltzeko
aurreko bizitzari
gustora heltzeko
lagungarri bat baita
fruitua heltzeko
ta gizon izatera
jolastuz heltzeko.

VII

Euskera degu gure kulturaren funtsa eta kirola berriz lantzeko gorputza ta hauek biak igo ditezen goruntza beharreko da batak besteari bultza biok behar bait dute elkarren laguntza.

VIII

Euskera ta kirola daudela lotuta biak daude kultura arrotzak nahastuta erderak ta fubolak dute zapalduta bakoitzak gaur arazo berdinak ditu ta gora irten daitezke elkar lagunduta.

IX

Euskera ta kirola daude lebarriak pasa behar dituzte momentu larriak hau konpondu beharra du Euskalerrriak hauek bait dira gure ezaugarriak gure sustraiak eta gure oinarriak.

X

Gauza bat dala eta daukat atsekabe euskera ta kirola dabilzala grabe daude atzerritako kulturen mirabe izan gaitezen gure buruaren jabe dauzkagun ondasunak galtzen utzi gabe.

Egilea: JON SARASUA
Maila: IV. MAILA (Nagusiak)



Argaz. Juantxo Egaña.

III. "ETXEGIÑA"

BERTSO-PAPER LEHIAKETA (1983)

I. MAILAN

— Txapelduna: XABIER ZEARSOLO
— Aipamen bereziak: AMAIA ARANBERRI
AITZOL ARRIOLA

II. MAILAN

— Txapelduna: ABEL IRIZAR

III. MAILAN

— Txapelduna: ESTHER LIZARRITURRI
— 2/Saria: AITOR LODOSO
— 3/Saria: NEREA LARIZ. IDOIA TXURRUKA

IV. MAILAN

— Txapelduna: JESUS MARI ETXEZARRETA
— Aipamen bereziak: ARANTZAZU LOIDI
JOSE ANTONIO GESALAGA,
"ZALDUBI"

“ALKATE IZANGO BANINTZ”

DOINUA: “BETROIARENAK”

I

“Alkate” gaiarekin
solasean gabiltz,
zer egingo genduken
galdezka dabiltz.
Boterea maltzurra
izaten da anitz,
ez luke izan behar
zerbitzeko balitz,
egin zenbait langintz,
al den gutxina hitz,
eta euskaraz mintz,
hau da nire baildintz
Elgoibarko alkate
izango banintz.

II

Ondoren herriari
sustraia ezarri,
ikaskintza guztiak
dohainik jarri.
Gero maixu jatorrak
herrira ekarri,
musika eta dantza
entretenigarri,
esan dugu sarri,
gaudela egarri
kale ta baserri,
diogu igarri,
kultura dela herri
baten oinarri.

III

Langabezia ere
tristeza deritzat,
familiar ogia
dugu premitzat.
Alkateak hartuko
bagenduke aintzat,
lan garrantzitsuena
liteke guretzat,
ezin dutenentzat,
pobre guztientzat,
zer jana behintzat,
ta langileentzat,
lanpostu bana sortu
bakoitzarentzat.

IV

Gazteak zer gurutze
txarra daramaten,
konturatuko gera
egunen baten.
Bide okerretikan
direla joaten,
beti guraso eta
maixuak esaten,
zein zaila daukaten,
zintzoak izaten,
beste zerbait jaten
hasiaz ematen,
droga eta alkola
utzi ditzaten.

V

Euskadin behar dugu
etxeko hizkera,
eta hitzegiteko
jarri aukera.
Euskal Telebista ta
irratia bera,
ume eta gazteak
entzuteko era,
daukagun galera,
irtenda kalera,
guztia erdera,
konturatu gera,
salbatuko gaituna
dela Euskera.

VI

Jokera gaizto asko
dira nabarmendu,
eta jendea hortik
ezin atzendu.
Beste baratza baten
herria mantendu,
guk eskeinitakoa
gustora jaten du,
hau dela zimendu,
okerra zuzendu,
egingo bagendu,
alperrik dira eta
kartzelak kendu.

VII

Herri txiki hauetan
ezinik kabitu,
pilatuta bizitzen
gera ohitu.
Plaza ta espaloiak
pixka bat haunditu,
zuhaitzez eta loraz
guziak ornitu,
errekak garbitu,
keak errenditu,
egin behar ditu,
hauxe zait gelditu,
etxe eta kaleak
zuri-berritu.

VIII

Atzerriko semeak
ditzadan gogora,
eta ekarri azkar
bere txokora.
Espetxeak zabaldu
presoak kanpora,
familiar biltzeko
heldu da denbora,
ez gaitezen zora,
kantatuaz, gora!
bilduaz, gerora,
amaren ondora,
itxaropen guztiak
ditezen lora!!!

IX

Herriak zoroetxe
bihurturik hasi,
igandetan mendira
goaz ihesi.
Atsedean leku nahi
nituzke ikusi,
ume eta aitonak
direla nagusi,
inor ez berezi,
ez bai du merezi,
barkatzen ikasi,
etsai eta guzi,
alkar maitasunean
gaitezen bizi.

Egilea: JESUS MARI EXEZARRETA
Maila: IV MAILA (Nagusien maila)

X

O! Ene jauna kendu
zaidazu lausoa,
egi bihurtu dadin
amets gozoa.
Mundu hau da promesa
denen frakasoa,
ez dadila gertatu
neronen kaso,
hau da errezoa,
zerura jasoa,
herri ta auzoa,
Elgoibar osoa,
egun batez bihurtu
paradisoa.

ALKATE IZANGO BANINTZ

DOINUA: "AITA IZENA"

I

Alkatetzako langintza hori
ezin da ikasi liburuz;
udaletxera sartu behar da
lan egiteko helburuz,
herri danaren ordezkari
betetzeko hainbat buruz.
Alkate batek izan behar du
herrikoitasuna erruz
herri guztia galdu ez dadin
gizon baten erruz.

II

Udaletxea berriztutzeko
garai garaian gaudela
partidu denek esaten dute
berek gehien dakitela.
Amets egin det gure herriko
zerrenda-buru nintzela
ta ametsetan agidu dana
azalduko det horrela
udaletxera sartu nahi duan
hautagai banintz bezela.

III

Langintza hortan ze asmo detan
egin duanari galde,
erantzun behar: lan egitea
hutsaren truke, debalde.
Prestatu degu lan hostarako
talde bikain bat bestalde
eta, herritar, baldin bazaude
gure asmoaren alde
zuen artzaia izan naiteke
ta zuek nere artalde.

IV

Ez genduke nahi lengo taldeak
egindakoa puskatu,
baizik bakarrik herriarentzat
bide berriak urratu.
Langabeziak ezarri duen
gaixotasunaz bukatu;
bainan hortako erizoideak
beharko ditugu batu
eta ondoren helburu denak
lortu arte burrukatu.

V

Bizi nahi horrek herriak dauzkan
arazoetatik gertu
mantentzen gaitu langabezia
menderatutzeko gertu,
zer asmo dedan arazo horri
buruz, nahi dizut agertu
lan sortu ta aldi berean
herri bizitza edertu,
herriarentzat zerbitzuetan
postu berriak zuzpertz.

VI

Herri osoa antolatzeko
komeni zaion modura,
aldatu nahi det orain dagoen
heziketa egitura:
liburutegi ta gau-eskola
udaletxean kontura
jarriz jendea bildu dedila
kulturaren ingurura
gutxi batzuen onuragarri
izan ez dadin kultura.

VII

Orain artean baserritarraz
ahaztuta egonak gera,
baserrirantza hitz batzuekin
orain nahi nuke hurrera.
Heldu beharrez gizarte justu
eta aberats batera
zuen lanetik etekin asko
beharko denez atera,
moldatu degu diru laguntza
berezi batzun sorrera.

VIII

Aldatu behar degu kalean
oraintxe entzuten dena:
hain zuzen zaharrak gure erruaz
bazterturikan daudela
egin behar da beraientzako
biltzeko leku onena,
besteongatik urte neketsu
ugari pasa hurrena,
izan dezaten merezi duten
zartzaroko atsedena.



Egilea: ARANTZAZU LOIDI
Maila: IV. MAILA (nagusien maila)

IX

Gure gazteak asperturikan
omen daduzkagu hola
esaten dute gazteentzako
hemen ezer ez dagola.
Baldin beraiek jartzen badute
gogoia eta ajola
dibertsio bide ederra
laster daiteke antola,
istalazio bikainak jarri
eta indartu kirola.

X

Hala ta guztiz udaletxean
edukiko genduke jai,
zuen esana adituzeko
izango ez bagina gai.
Galera baten eror gaitezke
eta hori ez degu nahi
ta horregaitikan zuen laguntza
eskatzen dizuegu, bai
zuek lankide zaituzteguna
aurrera begira jarrai.

IV. "ETXEGIÑA"

BERTSO-PAPER LEHIAKETA (1984)

I. MAILAN

— Txapelduna: NAGORE IRURETA
— Aipamenak: MARTA DIEGO
OLATZ ASTIGARRAGA

II. MAILAN

— Txapelduna: AITZOL ARRIOLA

III. MAILAN

— Txapelduna: AMAGOIA ZABALA
— Aipamenak: IÑIGO ALBIZU
ALEXANDER LEGORBURU

IV. MAILAN

— Txapelduna: XANTI ZABALA, "LEXO"
— Aipamena: PELLO ESNAL



MUNDU GALDUA

DOINUA: "XARMANGARRIA"

I

Oso penagarria
da gure mundua,
baina asmakizunez
badago zaindua,
gure laguntza gabe
benetan galdua.
Ai, gure mundu zaharra,
zaude zu ahuldua.


II

"Paro"o hitza entzunda,
gu gara goibeltzen,
horren ardurarekin
gaituzte lotutzen.
Barruko beldur hori
doala handitzen,
eta hori horrela
ari da gertatzen.

III

Ludi hau ikusteko
ni naiz eskapatu,
baina ni beldurtzeko
naute harrapatu.
Ez dakit zergaitikan
naizena izutu,
azkenean tristuraz
ez naiz etxeratu.

Egilea: NAGORE IRURETA
Maila: 1. MAILA



ZIKLISTA

DOINUA: "PASAIAKO PLAZATIK"

I

Bizikleta patataz
bete ta etxera,
pelikula zegoen
bizkor ikustera.
Azkar nentorren eta
atso bat atera,
ez jotzearen andra
zuzen errekarra.

II

Bizikleta den dena
gutziz txikituta,
ta nire beso ezkerre
majo apurtuta,
azkar Donostiara
taxixa hartuta,
heldu nintzanerako
besua minduta.

III

Laster urten nintzan ni
trastua jarrita,
ta baita besotxo
ondo gogortuta.
Ordutik gauza bat dut
buruan sartuta:
atso zaharrak badaude
jeitsi bajatuta.

Egilea: AITZOL ARRIOLA
Maila: II. MAILA

TORIZU ESKUA

(gazteriaren irtenbideaz)

DOINUA: "HAMALAU HERIOTZENA"

I

Etxera nentorrela
nekatuegiak
ikusit ditut galdez
zenbaiten begiak.
Zer irtenbide duen
gure gazteriak,
nolako etorkizuna
gizarte eriak...
Zer erantzun lezake
gaur bertsolariak?

II

Gau erdian jarri naiz
leihotik begira,
eguzkia jaiotzen
deneko mendira.
Galdera bihotzean
jira eta bira,
zeruaren gainean
izarren dizdira.
Egun gozoagoak
etorriko dira.

III

Geroak sortzen digu
askori zalantza,
bihotzeraino sartzen
sarritan arantza.
Noizbait loratuko da
gure esperantza
eta martxan hasiko
askatasun-dantza.
Gaua hartzen ari da
egunaren antza.

IV

Hona hemen dardaraz
nire erantzuna,
gauaren isilean
izarrei entzuna.
Geroak jaso beza
honen oihartzuna,
gazteak berezkoa
du etorkizuna.
Ez al da gailenduko
gaiztoen lizuna!!

V

Gazteria batetik
bestetik herri hau,
akuilu bikoitz horrek
kezkatan jartzen nau.
Historiak apurto
ditu hainbat arau,
bi eta bi ez dira
gertatu beti lau,
goizik gabe geratu
izan da zenbait gau.

VI

Sarri izaten dugu
duda agintari,
nork ez du etsipena
barnean nabari?
Baina gaurko honetan
izarrak gidari,
lekua utzi diot
itxaropenari.
Gauaren babesean
hasi naiz kantari.

VII

Geroaren beldurrez
zitugun gaztea,
guztioi dagokigu
goiari eustea.
Ez zaigu bidezkoa
negarrez hastea,
orain egin beharra
biharko uztea.
Erabat ustela da
alferren ustea.

VIII

Orainaldian duzu
geroaren giltza,
mirarien atzetik
alferrik zabilta.
Hazi txikian dago
gordea zuhaitza,
neguaren golkoan
udaren emaitza.
hutsetik zerbait sortzen
hain da gauza gaitza.

IX

Lehenaldia dugu
gehienetan maixu,
zure etorkizuna
garaiz presta ezazu.
Atea eskuhutsik
jotzen badiozu,
gero aurreantzean
jai izango duzu,
axolagabe izana
damutuko zaizu.

X

Honekin bukatzen dut
gazte adiskidea,
lagun zaitut kezkatan,
lanean kidea.
Ibiliz egi ohi da
gaur arte bidea,
jardunean daukazu
zeure irtenbidea.
Eskurik behar bada,
torizu nirea.

Egilea: PELLO ESNAL

Maila: IV. MAILA (NAGUSIEN MAILA)

GAZTEDIA AURRERA

DOINUA: "NAUFRAGOARENA"

I

Gaztediaren irten bidea,
bakoitzak ezin hartu berea.
Etena baita iragan eta,
etorkizunan ere. (bis)
Norengan ukan fedea,
gizartearen legea,
hau da zirko xelebrea.
Gezur, kontua ta iruzurren,
nkoktelo bateko lerdea.
Gaztediaren liluragarri,
non esperantza berdea? (bis)

II

Konsumismoa burla ta tranpa,
ezkerrez ezin mugitu hanka.
Aurretik ongi hitzegin eta,
atzetik buruan kanka. (bis)
Boterearen palanka,
orruz danga eta danga,
hau da guk daukagun ganga.
Modu honetan irten bidea,
hatzematen jaunak lan da.
Libertatea aldarrikatu,
aurrean jarririk langa. (bis)

III

Argi eduki arren begia,
gezurra gogor ahul da egia,
nora biderik gabe honela,
ez al dago gaztedia? (bis)
Haundi nahia gehiegia,
bakoitzaren izerdia,
alperrik galdu erdia.
Oso astuna egiten zaigu,
helburu dugun mendia.
Biderik ezin hautsi inola,
horra gure tragedia. (bis)

IV

Gizarteak du gaitza beregan,
ilusiorik ez dabil egan.
Eta gazteok ezin ikasi,
bizitzaren poza zer dan. (bis)
Hainbat trago mikatz edan,
betiko taberna beran,
nroboto batzuen tankeran.
Goitik beherako aginduekin,
gaude hil zori bezperan.
Eta bitarte gure ardura,
duuenek maitasun greban. (bis)

V

Laguntza gutxi hitzetik sobra,
honela ezin burutu obra.
Ume haroak aldegin zigun,
ta besterik nola logra?(bis)
Bizitza gordina hor da,
akabo ametsen borda,
alkohola edo ta droga.
Hasi nahi dunak debalde dauka,
hortatik lehen aproba.
Hauxe da ia denok daukagun,
etorkizun beltza horra!! (bis)

VI

Nola daiteken konpon hauzia,
ez da erreza noski guzia.
Noren besotan gozatuko da
gazteon amets hautsia. (bis)
Gure alor berezia,
hausten saiatu hesia,
giza balore krisia.
Elkartu eta lanari ekin,
geroak du merezia.
Ondorengoek izan dezaten,
guk ez dugun herentzia. (bis)

VII

Gizarte honek zer eman digu,
gauz on asko ez gara testigu.
Kulparik gabe jaso beharra,
pena da hainbat kastigu. (bis)
Bizio txarren katibu,
ez gaitzezen erori gu,
bi, bost, sei, zortzi, hamairu.
Goazen aurrera jaso burua,
borrokara behar bildu.
Beraldatzeez ohore hori,
gaztediari begiku. (bis)

VIII

Odolak digu maiz irakiten,
zerk ote du ba hau eragiten.
Gurekoikeriz baldin ba gabiltz,
behar dugu hortik irten. (bis)
Ez dakit denek dakiten,
hasi gaitzezen jakiten,
pentsa moldeak berpizten.
Saiatu arren ez da erreza,
helmuga beti iristen.
Baina ez digu nihork egingo,
geuk ez ba digu egiten. (bis)

IX

Jaio orduko zenbait landare,
ihartu zuhaitz zaharren pare.
Landu gabeko lurra pobre da,
ez gorotz eta ez kare. (bis)
Zabaldur da mila sare,
egiteko gure jabe,
noski suabe suabe.
Historiaren parte bat gara,
ez nagusien mirabe.
Landu dezagun gure lur hori,
besteren zai egon gabe. (bis)

X

Hemen oztopo hor berriz traba,
eskubiderik ez leike laga.
Geure tokia guk betetzea,
bidezkoa ez al da ba. (bis)
Non jo behar den aldaba,
bertara joan ahal bada,
gure nehurri edo galga.
Erakutsiz duintasunaren,
jabe zintzoak gerala.
Gure bidea bide zaila da,
ta zaila bezain zabala. (bis)

XI

Ekonomia edo kultura,
zer dagokion har beza hura.
Lan gabezizko arazo latzak,
politikazko lotura. (bis)
Plangintza baten ardura,
gazteok gure kargura,
hartzeko ordu heldu da.
Buruak hotzak bihotzak bero,

XII

Norbaitek haxe dio agian,
-Hau lasai zegok amets kabian-.
Baina ametsak inola ere,
ezin daitezke kabi han. (bis)
Argi gaitezen egian,
gaizki gabiltz aspaldian,
injustizien erdian.
Irten bide hau bakarra dago,
bizi garan gizaldian.
Nork geldituko gaitu ta nola?
jartzen bagera habian...

Egilea: XANTI ZABALA "LEXO"
Maila: IV. MAILA (NAGUSIEN MAILA)

V. "ETXEGIÑA"

BERTSO-PAPER LEHIAKETA (1985)

I. MAILAN

— Txapelduna: OLATZ ARRIOLA

— II. Saria: KOLDO GALDONA

— Parte hartu duen gazteenari:

OIHANA AGIRREGOMEZKORTA

II. MAILAN

— Txapelduna: XABIER ZEARSOLO

— Aipamena: XABIER ELIZBURU

III. MAILAN

— Txapelduna: GARBIÑE GOROSTIAGA

— Aipamenak: MAITE REMENTERIA

JON LIZARRALDE

IV. MAILAN

— Txapelduna: JESUS MARI ETXEZARRETA

— Aipamena: PELLO ESNAL



2 - VI - 84
«Etxegiña» IV. Bertso paper lehiaketa.

ELGOIBARKO EUSKARA

DOINUA: "NESKA ZAHAR BAT"

I

"Elgoibarko Izarra"
ai zaigu portatzen,
euskara bizi dadin
dago alegintzen.
Etxez-etxe paperak
dabiltza banatzen
saia gaitezen denok
hoiek irakurtzen.

II

Gure aitonengandik
genuen hartua,
bihotz-bihotzetikan
degu maitatua.
Gazteok hartu degu
guk fundamentua,
ez daigun ikusi hau
laster lurpetuta.

III

Euskara Elgoibarren
ez da ez galduko,
nahiz da aurkakoeekin
sarri egin topo.
Bertsolari gazteok
gera saiatuko,
ta gure alaitasunez
degu indartuko.

Egilea: OLATZ ARRIOLA
Maila: I. MAILA



TXINPARTA

DOINUA: "TRISTE BIZI NAIZ ETA"

I

Gehienetan klasean
egon arren lotan,
bertsoak egitera
goaz oraingotan.
Zer gertatuzten zaigun
gure gela hontan
adierazi nahi dugu,
gaur zenbait bertsotan.

II

Zigor, Joseba? Ander
ni eta Amaia,
bertsotan hasi gara
ta nahi dugu saia.
Gogorik ez da falta
ezta ere gaia,
bete dezagun bada
hemen gure nahia.

III

Ikasiko al degu
guk literatura,
maisua badu behintzat
hortako ardura.
Ahozkoan jardunez
zaharren modura,
kenduko zaigu akaso
gelako logura.

IV

Hogeita hamar gara
denera kurtsuan,
elkarrekin lanean
gaude urte askuan.
Maisuak aprobaten
badu gela osuan,
ezkertuko dugu guk
kantuz ta bertsuan.

Egilea: XABIER ZEARSOLO
Maila: II. MAILA

NORA GOAZ EUROPA...?

I

Kantatutzeroa noa
Europaren kopla,
O! gure azoka,
partaide izateko
heldu da epoka.
Ezkontzeko bezperan
zer diguzu opa...?
Andregai hoberikan
ezin dugu topa,
eta zurekin berriz
bildur naiz Europa.

II

Beti izan zerana
munduaren patroia,
ia jo duzu goi,
kontrarioak anitz
dituzula oroi.
Amerika batetik
bestetik Japoi,
hartu behar dituzu
makinabat jipoi,
beti jauntxo izana
orain zaude morroi.

III

Merkatu batua ta
militarren OTAN,
dauzkagu European.
Ezin ditut iraulki
nik nere errotan,
baina onartu behar
parte hartzekotan,
aukerarik ez dugu
guk uztartze hontan,
bakarrak bizitzea
hobe da askotan.

IV

Españak, Europaren
bihotza konkista,
hain dugu artista,
haundi samarrei beti
bota behar bista.
Holako ezkontzetan
sesioa maiz da,
pareja desberdinak
konpontzea gaitz da,
zu aberatsa eta
ni pobrea naizta.

V

Europa nora dohan
inork ez dakigu,
atzetik beti gu,
ondoren txar guziak
gordetzen zaizkigu.
Ez dugula izango
hainbeste kastigu,
sasi-ezkontza honek
-denbora testigu-
bentaja aina kalte
ekarriko digu.

VI

Reagan omen daukagu
laguntzaile fina,
hori da jakina,
misilak dohan eta
nbaseako egina.
Dolarrez ere sarri
laguntzen dakina,
bere antzekoentzat
gizon atsegina,
mundu hontan sortu den
zakurrik haundina.

VII

Dirua nagusi ta
zaintzen militarrek,
ez dira hain txarrak,
haundiak babestuta
zapaltzen kaskarrak.
Konforme ez direnak
ixildu beharrak
dakartza kartzela ta
tortura zakarrak,
lege hoietzek ditu
diru ta indarrak.

VIII

Langileak milaka
paroarene jabe,
zenbait atsekabe,
eta tailer gehienak
krixixean daude.
Langile berririkan
ez hartzea hobe,
greba ta buruhaustez
aspertuta gaude,
makinak ugalduta
gizonak lan gabe.

IX

Langabe dagoenak
ditun oinazeak,
tripamin luzeak,
desiatzen jateko
ihar ta hezeak.
Batzuek badabiltza
ederki aseak,
baina langile asko
kalean goseak,
oraindikan European
badaude nklaseako.

X

Petroleoa dugu
energi bakarra,
munduko negarra,
beste sistemaren bat
asmatu beharra.
Zerbaiten bila dabiltz
denak su ta garra,
baina ez datorkigu
aurrerapen txarra,
horren orde jarririk
nuklear indarra.

XI

Gaurko aurreraperi
jarririk begira,
hau ez dela jira,
munduaren erdia
armaz estali da.
Herioaren misil
hoiek erretira,
pakean bizitzeko
eginak balira,
baina geu kiskaltzeko
asmatuak dira.


XII

Larogei ta laugarren
urtea amaitu,
ta dugu nabaitu,
bide hontatik ezin
dugula jarraitu.
Mundu hau ikusita
nolatan alaitu...?
Gorrotatzea beste
legerik ez baitu,
gerra zoroen batek
konponduko gaitu.

Egilea: JESUS M. ETXEZARRETA
Maila: IV. MAILA



1985 Maiatzak 31
«Etxegiña» V. Bertso paper lehiaketako sari banaketa.



VI. "ETXEGIÑA" BERTSO-PAPER LEHIAKETA (1986)

0. MAILAN

— Txapelduna: IRATI AGIRREAZALDEGI

I. MAILAN

— Txapelduna: IZARO ETXEGIBEL
— Aipamenak: LEIRE ZALDUA
IBON ARRIOLA

II. MAILAN

— Txapelduna: AITZOL ARRIOLA
— Aipemank: XABIER ZEARSOLO
IGOR ODRIOSOLA

III. MAILAN

— Txapelduna: GUSTAVO BASTERRETXE
— Aipamenak: GERMAN MEABE-BASTERRETXE
AITOR GOIKOETXE
IOSEBA GOROSABEL



"ETXEGIÑA"

DOINUA: "LORIAK UDAN"

I

Orain dela hilabete terdi
hil zitzaigun "ETXEGIÑA",
albiste honek ekarri zigun
denei benetako miña.
"ETXEGIÑAK" zun umore ona
eta bihotz atsegiña,
denok egin genuen malkoei
eutzitzeko alegina.

II

Egunero ardo zuri batzuk
hartzten zituen lagunekin,
berak harreman asko zituen
euskal bertsolariekin.
Oso alaia egoten omen zen
Euskalerriko ohiturekin,
Elgoibar asko oroituko da
bere seme kuttunarekin.

III

Aurtengo Santa Ageda errondan
nabariko da hutsuna,
hain zuzen ere faltatuko da
koplak asmatu zituna,
German Uriguen gure "ETXEGIÑA"
zerura joan zaiguna,
Jaungoikoak izan dezala
bere biziko laguna.

Egilea: IZARO ETXEGIBEL SORALUZE
Maila: I. MAILA

ELGOIBARKO KIROLDEGIARI

DOINUA: "TRISTE BIZI NAIZ ETA"

I

Kexa bat nahi dut esan
lau bertso hauekin,
ta herriko alkateak
behar luke jakin.
Obra bat hasi zuten
ganora gutxikin,
horrela izateko
zertarako ekin.

II

Kiroldegi haundia
egingo zutela,
igeritoki ta abar
izango zirela.
Igeri ikasteko
aukera nuela,
baina oraindik dago
hasi zen bezala.

III

Kaleak konpontzea
oso ondo dago,
baina kiroldegia
guk dugu nahiago.
Hortarako dirurik
orain ez badago,
lortuko ote dute
sekula gehiago?

IV

Lagunok pentsaizue
garrantzitsu dala,
gaztediak badu ta
zerbaiten beharra.
Kirolari heldu ta
porruari laga,
hortarako tokia
derrigor behar da.

Egilea: AITZOL ARRIOLA
Maila: II. MAILA

AZKEN BERTSOLARI TXAPELKETA

DOINUA: "ELORRIOKO KALIAN"

I

Euskal Herrian arazo asko
omen daitezke aurkitu
baina gaurkoan arrazoi bitxi
ta alai batek bildu gaitu
bertsolarien txapelketa honek
bihotz asko piztu ditu
horrela jarrai ezker ezin
euskal kultura amaitu.

II

Txapelketa hontan elkartu dira
gazteak eta zaharrak
giputx, bizkaitar, iparraldeko
baita ere naparrak
orain artean izan ditugu
nagusi guk bizkaitarrak
baina oraingoan txapela digu
irabazi azpeitiarrak.

III

Bertsolari on eta ugari
sahiatu dira kantatzen
barruan duten onena zuei
era onenean azaltzen
txapela zuten denak merezi
ez det nik zalantzan jartzen
denak ahalegin egin bait dute
euskera eta Euskadi altxatzen.

IV

Jendea pozten aritu dira
bertsolariak propio
bertso bikainak kantatuz eta
lana eginaz serio
nahiz beraiei tokatu zaien
hortxe nahiko kalbario
bertsozaleak benetan goza
horrek ez al du balio.

V

Peña, Egaña, Sarasua eta
Amuriza lehenenguak
Enbeita, Lopategi, Murua
ta Lizaso hurrenguak
guzti horiek ziraden geldi
finalera aukeratuak
azkenez jantzi zuen txapela
azpeitiko morrozkuak.

VI

Inor ez zen hor aritu gaizki
edo eta eragabe
baina bakarra txapeldun behar
ai! zer egoera grabe
ezin bukatu bertso hauek nik
zorianak eman gabe
lege onean egin zinaden
Lizaso txapelan jabe.

VII

Final egunez ikusi gendun
belodromoa betea
pozez irrika guztiak alai
nabari nuen gentea
gelditu zaigu zabalik guri
etorkizunan atea
bertsolaritza ea izaten den
buka ezineko katea.

VIII

Oraingo hontan izan dirade
bertso ta bertsolariak
hurrengo baten euskal dantza
edo trikitilariak
izan daitezen euskal nortasun
alaian erakusliak
gora euskera gora Euskadi
ta bertsozale guztiak.

Egilea: GERMAN MEABEBASTERRETXEA
Maila: III. MAILA



VII. "ETXEGIÑA" BERTSO-PAPER LEHIAKETA (1987)

I. MAILAN

— Txapelduna: KOLDO GALDONA

III. MAILAN

— Txapelduna: XANTI ZABALA, "LEXO"

— Herriko onena: ION EUGI



TXAPELKETA

DOINUA: "BETROIARENAK"

I

Guri tokatzen zaigu
lana egitea
betroiaren doinuan
jendea alaitzea.
Hobe dut bukatzean
bertsoa lantzeate
eta taspelketa hortan
gero abestea.
Batek laguntzea
besteak nahastea
ta nik despistea,
hobe aldatzea
nahiago dut beste bat
gero osatzea.

II

Ea epai mahaikoek
didaten ematen
puntu pila bat eta
txapela ipintzen.
Lan asko egin dut bai
bertsoa osatzen,
denbora eukiz gero
hasi naiz jolasten.
Ez badut gozatzen
lagunekin batzen,
orduak pasatzen
txisteak azaltzen,
ez didate utziko
txapela jartzen.

III

Jende guztia dago
bai nere aurrean,
baina sariak berriz
beste aldean.
Mutil guztiak datoz
bai nere galdean
ea txapelketa hau
irabazi dedan.
Hango epelean
txaloen artean,
ta denon ustean
gure antzokian,
txapela jarriko det
buruan erdian.

Egilea: KOLDO GALDONA
Maila: I. MAILA

ELGOIBARKO IKASTOLA

DOINUA: "ELORRIKO KALEAN"

I

Hasi aurretik "ETXEGIÑANTZAT"
aipamenik hoberena,
elgoibartarrok eduki dugun
bertsolaririk gorena.
Herrian jaio, herrian bizi
betiko herriarena,
ezingo zaizu inoiz ordaindu
zuk egin zenuen dena.

II

Ikastolaren urteurrena
ez da gai bate erraza,
baina fetxa hau aztertu gabe
aurten ezin dugu pasa.
Hasieratik egindakoa
ez baita izan eskasa
ta hogeitabost egin ondoren
urtez urte jarrai beza.

III

Garai haretan ikastola bat
sortu ahal izateko
pertsona batzuk egin ziguten
izugarritzko lan franko.
Hortaz aparte zaila izan zen
dirurik ez zegoelako,
Etxeberria ta Ajuria
benetan eskerrik asko.

IV

Gure ikastolak hogeitabost
urte ditu aurten bete,
edukitako oztopo haiek
utzirik behingoz aparte.
Orain hor dira beren lanean
irakasten hainbat gazte,
zortzi kurtsotan haurtxo guztiak
maila on bat lortu arte.

V

San Bartolome ikastolatik
pasa da hainbat ikasle,
batzu bikainak ta beste batzu
ikasketen ez hain zale.
Badira noski halabeharrez
egina dutenak kale,
hala ta guztiz gehientsuenak
izan ditugu garaile.

VI

Denok dakigu zein baldintzatan
zegoen lehen euskara,
ikastola hau lagundu asmoz
etorri zen gure artera.
Bide luzea gelditzen zaigu
hemen ez dago aukera,
elkar ditzagun indar guztiak
jarrai dezagun batera.

VII

Gaurtik aurrera ikastolaren
helbururik hurbilena,
da irakastea haur guztiei
gehien gustoko dutena.
Ikas dezaten euskera dela
hizkuntzarik zaharrena
ta iraungo dula egiten bada
erderarekin etena.

VIII

“ETXEGIÑAREN” oroimenezko
bertso-paper lehiaketa,
bai izan dela partaideontzat
benetakoa azterketa.
Gure bertsoak bere mailakin
ez dute konparaketa,
ahalegintzen ausartu gara
esperantzakin beteta.

Egilea: ION EUGI AIERDI
Maila: III. MAILA

ELGOIBARKO IKASTOLA

DOINUA: “USO TXURIA AIDEAN”

Elgoibarko ikastola,
sortu zitzaigun behin hola. (err.)
Ikusirikan txoriak nola
maite ez duen kaiola,
kantuan libre aritu zedin
euskaldun errezinola. (err.)

Zenbat Haritz ta Eneko
pasa da dagoeneko?
Zenbat Nerea, zenbat Idoia
zenbat beste izeneko?
Habe hoberik ez du herriak
inoiz behartzen deneko.

Geurea geuk behar lortu,
ta noizbait ginen ohartu.
Etsaien mende ziren nklitxeako
halako batez apurtu.
Ametza baizik ez zirudien,
hura egi da bihurtu.

Euskaldunok dugu hitza,
ugaritzeko emaitza.
Ilunpearen zubi ilunak
ikus dezan argi printza.
Ikastolak du erro errotik
euskal nortasunaren giltza.

Gaitza guztiz serioa,
zaila erremedioa.
Nondik hasi eta nola jarraitu,
horra hor desafioa.
Euskaldun haurrek izan zezaten,
irakaskuntz propioa.

Euskal altxorraren bitxi
zerala daukat iritzi.
Ikastolaren bidez hasi gara
gauden mailara iritsi.
Zuri eskerrak Elgoibar ere
da euskaldunago bizi.

Neke eta buru hauste,
erraza zenik ez uste.
Etorkizuna helburu gisa,
lana bihurtuz birtute.
Arbola dago fruitua emanez
zutik hogeitabost urte.

Gure esku dagoen arma,
mantentzen behar da asma.
Autogestioz publiko egin
hainbat maite dugun ndamao.
Eusko gazteek izan dezaten
ikastolan kultur ama.


Landare ttipi aurrena,
orain haundi ta lerdena.
Ezerezetik abiatuaz
hazi arte leher dena.
Euskadi eta euskeran alde
bete du mende laurdena.

Amen titiak xurgatuz
haurrak doaz elikatuz.
Geroa tinko izan dezaten
oinarri ona finkatuz.
O! ikastola zure altzoan
behar dutena erakuts.

Ikastola ezin uka
izan da herri burruka.
Aurrera ere jarrai ezazu
sasilan guztien aurka.
Zu galdutzeaz inoiz ez gaitzan
geure historiak juzka.

Behar gorrien axolak
piztu zituen odolak.
Elgoibar zure ikastolantzat
horra nire epistolak.
Zu goralduaz goraltzen ditut
Euskadiko ikastolak.

Egilea: XANTI ZABALA "LEXO"
Maila: III. MAILA



Argaz. Juantxo Egaña.

VIII. "ETXEGIÑA" BERTSO-PAPER LEHIAKETA (1988)

I. MAILAN

— Txapelduna: ANE GILLO
— Aipamenak: IRUNE ARRIOLA
AMAIA GABILONDO
ARNAITZ GORRITI

II. MAILAN

— Txapelduna: LEIRE ALTUNA
— Aipamenak: AINARA GARCIA
IRATI AGIRREAZALDEGI
OIHANA ETXABE
MAITE ZABALA
LOREA CID
IZARO ETXEGIBEL

III. MAILAN

— Txapelduna: LOREA PEREZ DE ALBENIZ
— Aipamenak: BEÑAT BILBAO
IÑIGO PALOMINO

IV. MAILAN

— Txapelduna: ANTXON KAZABONE



DROGA

DOINUA: "AITA JAINKOAK"

I

Asko ta asko sartu dirade
aurten drogaren munduan,
nik pentsatzen dut ez dakitela
horrek zer ekartzen duan.
Ezagutzen nun nik mutiko bat
bere izena zana Juan,
ta drogan kulpaz berak mundu hau
utzi behar izan zuan.

II

Behin batez irten zan etxetikan
ama negarrez utzita,
Juanek esan bai zion lehenago
droga zula erosita.
Aman malkoak eta zotinak
ez dituzu ikusita,
ia-ia egin zun negar
bi baldekada beteta.

III

Handik aurrera ez zan bueltatu
Juan bere etxe maitera,
drogaren kulpaz joan zan eta
zuzenean hilobira.
Momentu hartan ezin zun eman
bere biziari bira,
droga hartuta zer gertatzen den
bertso hauekin begira.

Egilea: LEIRE ALTUNA
Maila: II. MAILA

GIZARTEAREN ZULO BELTZETAKO BAT

DOINUA: "XARMANGARRIA"

I

Gogorra iruditzen zait
gaurko gizartea,
izango ote da inoiz
hau baino hobea?
Azaltzeko moduan
hona adibidea,
gezurra badirudi ere
egia da ordea.

II

Hamairu urte zituen
gaztea oraindik,
arazoak etxean
ez zeukan pakerik.
Bere bakardadean
sentitu zen hilik,
ez zeukan aukerarik
ez irtenbiderik.

III

Laguntzeko eskurik
gabe somatu zen,
ta irtenbide modura
hasi zen drogatzan.
Etxeko arazoak
behin ziren joaten
ta bera ordurako
jada ezin irten.

IV

Ama galdu egin naiz
ez egin negarrik,
inoiz ez bait dut eman
etxe hontan pozik.
Har ez dezala anaiak
holako biderik,
eta orain utz nazazu
hiltzeko bakarrik.

Egilea: LOREA P. DE ALBENIZ
Maila: III. MAILA

OSASUNA, MUNDU HONETAKO ONDASUNA

DOINUA: "GOIZEAN GOIZIK"

I

"Goizean goizik jeiki ninduzun"
doinua harturik lagun,
bertso alaiak aire tristean
ea moldatzen ditugun.
Gauza serio eta sakonak
esaten gau eta egun...
Gizarte triste ta ilun hontan
far ere egin dezagun.

II

Gutxi jatea hobea dela
ematen diogu antza,
urdaila ere zaindu behar da
sartuz koipe eta saltsa,
gozozaleak izanagatik
bota lasai nahiko gatza,
ase ta ere jarraitu jaten
nahiz mahaitik ezin altxa.

III

Ogi zuria, ogi beroa
labean egon berria,
afal aurretik, afal ondoren
ezin harturik neurria,
edozerekin ongi sartzen da
gauza estimagarria.
Ogi pixka bat osasuna da,
ezak sortzen du larria.

IV

Aza, txorizo, urdai giharra
babarrun ta odolkia,
mondongo puska lodikotea,
atzetikan saiheskia;
gibel punta bat saltsan jarrita
hasiera egokia.
Porru-patata osasuna da,
ondasuna txerrikia.

V

Saltsan jarrita arkume ona,
arkume ona erreta,
olio grasaz esku, aurpegi
eta kokotza beteta.
haragi pixkat presta dezagun
errez jango dugu eta.
Entsalada bat osasuna da,
ondasuna da txuleta.

VI

Sagardo ona, ardo hobea
hoinen atzetik gabiltza,
hortatik aski izan ezker
alaitasunaren giltza.
Zumoak hartzen hasten bazara
oso sano ez zabilta.
Ur hotz gardena osasuna da,
ondasuna ardo beltza.

VII

Postretarako soilik mamia,
beteko al da kupela,
bizkotxo pixkat, ta flan txiki bat
gehiegizkoa ez dela;
tarta ere jan egin beharko
ondatuko da bestela.
Fruta freskoa osasuna da,
ondasuna da pastela.

VIII

Horrenbeste jan, hainbeste edan
irtenbide bat bakarra:
kafearekin sartu ditzagun
kopa batzu barra-barra;
patarrrik gabe, txanpainik gabe
nahiko afari kaxkarra.
Kamamiloa osasuna da,
ondasuna da patarra.

IX

Gorputz guztia –a tope– dago
gorputza eginik zisko,
orain birikak ketan beltzatuz,
eztulka hasteko listo;
piztu ditzagun zenbait txiskero
eta piztu zenbait misto.
Oxigenoa osasuna da,
ondasuna Montekristo.

X

Afaldu eta orain etxera:
Hori gauza aldrebesa,
gizon jokatu, kristauak ez du
izan beha hain eskasa;
sartu dezagun alkohol pixkat
estutu arte arnasa.
Lo egitea osasuna da,
ondasuna da gau-pasa.

XI

Bi pausu eman behar dira ta
goaz kotxearen bila,
exeri eta nekatu gabe
gidari on ta abila.
Eta nekatu nahi duena
oinez ibili dadila.
Oinez joatea osasuna da,
ondasuna berebila.

XII

"Osasuna da mundu hontako
ondasuna" diotenez;
dena kotxean, pauso bat ere
ezin dugu eman oinez,
gauetz parranda, gauetz zurruta,
eta ohean egunez.
Gutxi jatea hobea baina,
ipurtzuloraino gainez.

XIII

Zer arraio da orduan mundu
honetako ondasuna?
Bertso hauetan aurkitu dugu
egitazko erantzuna.
Gure gorputza nola ondatu,
da gure eginkizuna,
gero begiak zerura jaso
ta eskatu osasuna.

Egilea: A. KAZABOÑ
Maila: IV. MAILA



IX. "ETXEGIÑA" BERTSO-PAPER LEHIAKETA (1989)

0. MAILAN

— Aipamenak: IKER PALOMINO
MIKEL ARZAMENDI
LORE AGIRREAZALDEGI

I. MAILAN

— Txapelduna: NEREA IÑIGUEZ
— Aipamenak: AMAIA GISASOLA
SUGAR ETXANIZ

II. MAILAN

— Txapelduna: LOREA CID
— Aipamenak: LEIRE ALTUNA
IBON ARRIOLA

III. MAILAN

— Aipamena: IRAIDE LOIOLA

IV. MAILAN

— Txapelduna: XABIER AMURIZA
— Herriko onena: ALBERTO AGIRREAZALDEGI

SEKULA HOLAKORIK NIK EZ DET IKUSI

DOINUA: "HARGIN ANDALUZA"

I

Aitak arrantzan dauka
gehiégizko maña,
gaur ere bai hartu du
galanta arraiña.
Bere gustokoena
dauka amorraña,
eta errekan daude
aspertzeko aina.

II

Igandero joaten da
nire osabakin,
bota, karrete eta
kañaberarekin.
Arrain asko hartzeko
esperantzarekin,
ta etxean jateko
gogo askorekin.

III

Sekula holakorik
nik ez det ikusi,
esan nion aitari
hain arrain nagusi.
Benetan arrain hori
da nahiko itsusi,
ta edertasunean
badu zer ikasi.

Egilea: NEREA IÑIGUEZ
Maila: I. MAILA

SEKULA HOLAKORIKAN NIK EZ DET IKUSI

DOINUA: "XARMANGARRIA"

I

Igande goiz batean
mendira nihoan
nere txakur gaztea
nuela alboan.
Eskuan makila ta
poltsa bizkarrean,
egun zoragarri bat
pasatzeko asmoan.

II

Baserritarrak zeuden
zelaian erdian,
txakur gaixo bat hiltzen
belardi gainean.
Gehiago ez jotzeko
esan nienean,
txakurra utzi zuten
hiltzeko zorian.

III

Etxera eraman nuen
sendatzeko asmotan,
asko sufritzen nuen
bihotz barrenean.
Sendatu egin nuen
bost bat egunean,
ondo moldatutzen zen
famili artean.

IV

Baserritarrak hori
dena ikustean,
ta hil behar zutela
entzun nuenean.
Nik hil nuen txakurra
minutu batian,
eta ez zun sufritu
oin dago bakean.

Egilea: LOREA CID
Maila: II. MAILA

OGI GOGORRARI AGIN ZORROTZA

(Euskararen erasoei erantzun zorrotzak)

DOINUA: "NORTE-KO TRENBIDEA"

I

Sarri askotan esaten dugu: euskara hil zorian dago, urte batzuek gehiago eta ahalegin denak akabo. Halere asko pozik bizi da, zertan jarri urduriago, enbido honi erantzuteko behar da bota "ordago".

II

Euskal Herrian gu euskaldunok gure etxean arrotzak; hiru lau hitz entzunagatik sentitzen du hau bihotzak. Eraso hauen aurrean beti ez gelditu erdi motzak, euskaraz bizi behar badugu izan gaitezen zorrotzak.

III

Euskaraz jaio, euskaraz bizi, erdaraz egun osoak; kalean eta etxean ere egunero erasoak. Honen errua maisuak baino gehiago du gurasoak. Ikusten ez dun belearentzat ipurbeltza du zozoak.

IV

"Egunon", "kaixo", "ondo ibili" "agur" eta "gero arte", euskaraz ez da ezer entzuten hitz soil hauetaz aparte. Honen ondoren "no se euskara" hori da euskal gizarte, halako gizon-emakumeak dira gure etxekalte.

V

"Egunon, nor da?" galdetu beti telefonuko deiari. "Oiga", "digame", entzunagatik euskaraz erantzun hari. Udaltzain eta tabernaria ertzain edo funtzionari, aurpegi txarra ikusten badut jarriko gara urduri.

VI

Kilometroak; Ibilaldia, Herri Urrats ta Korrika, Nafarroa ta Araba oinez euskararentzat botika. Ito larrian bizi da eta laister hilko da apika, bizirik iraun nahi badugu egin zuka edo hika.

VII

Euskara gora, euskara behera dabil ahotik ahora, politikoez ta jakintsuek hitz politikak beti gora. Gu berriz mutu, esan beldurrez: "badakigu nondik nora". Neurri gogorrak eska ditzagun orain eta ez "ahora".

VIII

Parlamentua, Udaletxea, Aldundia, Jaurilaritza; oraindik ere ez dute jarri euskaraz heuren bizitza. Konstituzio hori delaeta bi hizkuntzaren eskaintza, beti euskaldunak izan gara eta euskaraz nahi dugu mintza.

Egilea: ALBERTO AGIRREAZALDEGI
Maila: IV. MAILA (NAGUSIEN MAILA)

OGI GOGORRARI HAGIN ZORROTZA

DOINUA: "ZIRT-ZART"

I

Txikitatik entzun dut
ogi gogorrari
hagin zorrotza behar
zaiola ezarri.
Neurez ez bait nenkien
lege horren barri
probatu nuen eta
bertso hauek jarri.

II

Gabon gauzez ogia
bedeinkatzerako
kuzkurra gordetzen dut
hurren urterako.
Lizundu gabe hantxe
egongo da bapo
amorratu ez dadin
zakurrarendako.

III

Behin erabaki nuen:
Aizak hi, zakurra!
Aurten neuk jango diat
iazko kuzkurra.
Amorruari leuntzen
baziok muturra
neuretzat ere ez duk
izango makurra.

IV

Badaezpada aurretik
gutxitxo agian
ahoa lantzen ekin
nion harrobian.
Hortzak nituelarik
elkar jan zorian
harrian sartzen ziren
baina ez ogian.

V

Gosea duk -zioten-
hortako bikaina
hala barautu nintzen
jakiteko aina.
Jango nuke Deabru
beltzaren mingaina
nire aurrera ez da
ausartuko baina.

VI

Ogiari amorruz
heldu diot noski
hortzak bertan gelditu
nonbait sartu gaizki.
Baina aitzaki hori
ez izaki aski
kuzkurra irentsi dut
hagin eta guzti.

VII

Hatzamarra sartuta
eztulari tira
aho zabalik nago
hutsera begira.
Nola ekarri orain
Lehen zeuden tokira
bide naturaletik
abitzen badira.

VIII

Okin bat ikusirik
atez ate saltzen
eskua bota nion
otarrera zuzen.
Eritzi nion ogi
hain biguna ezen
kuzkurraren atzetik
zurrutean joan zen.



Egilea: X. AMURIZA
Maila: IV. MAILA

IX

Zer ote da gosea
Grina ala mina?
Sabel-sugea ala
buruko sorgina?
Gogortasunik ez da
harentzako dina
hortzak irentsi arren
horzkari berdina.

X

Elgoibarren harturik
gosearen trena
tximistan ibili naiz
esteak barrena.
Bakarrik behar diat
Epaile gurena
ez hortz eta ez sari
amaitzea dena.

DENTISTARTEGANA JOAN ETA
X. "ETXEGIÑA"
BERTSO-PAPER LEHIAKETA (1990)

0. MAILAN

Aipamena: **IONE OLAIZOLA**

I. MAILAN

Txapelduna: **ARNAITZ GORRITI**

Aipamenak: **IOSU IRIONDO**

IÑAKI BENGOETXEA

II. MAILAN

Txapelduna: **LEIRE ZALDUA**

Aipamenak: **KOLDO GALDONA**

IRATI AGIRREAZALDEGI

III. MAILAN

Txapelduna: **IRAIDE LOIOLA**

Aipamenak: **MARIA LONGARTE**

SERGIO SALGADO

IRATXE SORALUZE

IV. MAILAN

Txapelduna: **JESUS MARIA MENDIZABAL**

Egilea: ARNAITZ GORRITI
 Maila: I. MAILA



DENTISTARENGANA JOAN ETA ALIKATE HANDI BAT IKUSTEN DUZU MEDIKUAK ESKUAN DUELA

DOINUA: "BETROIARENAK"

I

Aspaldi hontan daukat
hagin bat baldarra
baina gaur etorri da
mediku zarra.
Alikate ta guzti,
han dator azkarra,
esanez: "kenduko det
zure hagin txarra"
nire deiadarra,
izan zen bakarra.
Mina barra-barra,
ikusi nun garra.
Baita ere ikusi nun
ordun izarra.

II

Orduan hartu nuen
kristorengo mina.
Oraindikan dadukat
konpon ezina.
Medikuak horretan
bait daduka grina
zortzi hagin batera
kentzeko arina
sagar eta piña
jateko nik zina
ta gero ozpina
Buztirik irina
kendu zidan jateko
gogo handina.

III

Dentista hau daukagu
nahikoa zitala
nork esango du hori
onena dela.
Garrasika hasi naiz
ncomo una balao.
Saltoka min handiaz,
irten da azala
Askotxok bezala
hilda dio itzala
ordukoa gala.
Ematen nun "Ala"
orduan pentsatu nun
hilko nintzela.

Egilea: ARNAITZ GORRITI
Maila: I. MAILA

BERLINEKO HARRESIA

DOINUA: "LORIAK UDAN"

I

Famili asko izandu ziren
gogoz kontra banatuak
horma indartsu ta luze batez
erdi-erditik moztuak
beren pertsona maitatuengandik
betirako urrunduak
agintarien esku latzetan
odoletan murgilduak.

II

Gartzela baten egon bailira
herria atxilotua
bertatik ihes egitea ere
ezinezko gertatua
barruan zuten itxaropena
era batean galdua
ameztutako askatasuna
soka sendoz lotua.

III

Zaharrak behintzat herritik kanpo
pozik ziren ibiliak
baina gazteak bizi guztian
esklabu gisa hasiak.
Eskerrak orain gobernuak du
behingoz ireki begiak
lehengo urtean ate guztiak
zabaldu zitun heziak.

IV

Berriro ere zoriona da
herri horretan nagusi
konprobatzea nahi baduzue
bertara joan ta ikusi.
Herri berbera ematen dute
eduki gabe harresi
famili denak elkartu dira
botata horma itsusi.

Egilea: LEIRE ZALDUA
Maila: II. MAILA

EUSKADI TROPIKALA

DOINUA: "ERREGUETAN"

I

Pentsamendu hau zuen aurrean
nahi nuke nik gaur aitortu,
aspaldi hontan ez da zeruan
lainorikan ez agertu.
Iturri eta ibai guztiak
denak dira bai agortu,
Euskal Herria guztiz tropikal
zaigu aspaldi bihurtu.

II

Aspaldi hontan entzun ditugu
bai hamaika argudio,
zientzi gizonen egin dituzte
hamar mila estudio.
Gero entzun behar izaten dira
hauen hainbat predizio,
ezin daiteke gal esperantza
herri hontan oraindiko.

III

Eguraldi ona izango dela
esan digu gaur biharko,
atzo gauean ere horretan
telebistan ziren gaurko.
Horrela berriz jarraituz gero
beharko da egon txarto,
San Pedro ere jarri zaigula
oso harro eta terko.

IV

Zelai berdeak ikusten dira
jantzita guztiak horiz,
apirileko euria ezin
liteke ordaindu miloiz.
Nekazariak ikusten dira
kezkaturik eta arrazoiz,
ez omen da ez horrelakorik
ezagutu hemen inoiz.

V

Hor behe aldean aspaldi honetan
ur ugari dute duan,
eta gu hemen gabiltza orain
izugarri bai justuan.
Esan daiteke lehendakari
txarra dagoela zeruan,
noiz banatuko ote dituzte
ur denak bere lekuan.

VI

Baserritarrak oraingotikan
jarri dira su eta gar,
hemengo zelai eta basoak
jarriak ziku eta igar.
Gure esku ez dagola eta
alferrikan egin negar,
errezuetan hasi zaizkigu
inguruko hainbat eleitzar.

Egilea: IRAIDE LOIOLA
Maila: III. MAILA

VII

EUSKAL HERRI TROPIKALAREN

DOINUA: "FRANTZISKAK ZER DAKARREK"

"Euskal Herri gurea
aurki tropikala."
sarri pentsatua dut
behintzat nik hala.
Xirimiria zen lehen
lege printzipala
baina eguraldia
jarri da zitala,
horren naturala
eguzki petrala
ez da ezer, ala?
Majo aldatuko da
gure perkala.

II

Aldaketaren berri
nahi dut eman trapa!
nahiz egia irudiz
ezin atrapa.
Zeharo galdu bait da
goi lainoen tapa
hegoa ipariera;
dator tipi-tapa;
etapaz-etapa
antizikloi kapa
ez dadin eskapa
azpikoz-gora ezar
dezagun mapa.

V

Eman dezagun, beraz,
artez edo partez
tropikalak garela
datozen urtez.
Berehala batean
halako lehortez
ura nahiko genuke
ardoaren orde;
orduango zortez
sentimendu torpez
aprobetxa norik ez
mamarik beharrena
bodegan gordez?!

IV

Ibil ditzagun bizkor
buru ta zankoak
basoan ez galtzeko
pezta-frankoak.
Sal ditzagun aguro
pago-haitz sendoak
joanak direlako
hauen momentoak,
nahiz galdu ontoak
ez izan tontoak!
hor daude prontoak
kokoteroak eta
platanondoak.

V

Gure baso zaharretan
 abere abilak
 aldeginak ditugu
 edo-ta hilak.
 Kokoteroarekin
 akabo okilak,
 katagorriak eta
 jineta sotilak...
 Arboladi pilak
 zergatik isilak
 eduki, mutilak?
 Tximuak jar ditzagun
 eta gorilak.

VI

Jakina da zorrotzik
 dugula hagina
 baina tximu-txitxia
 ez da atsegina!
 Derrior hartu behar
 fruten diziplina:
 melokotoi, platano,
 koko eta pina...
 Bestetik adina
 ariko bagina
 hau ere jakina:
 erdira ipurdia,
 gertia pina.

VII

Tropikoak berez du
 giroanugarrik,
 ez da behar izaten
 soineko tzarrik.
 Behin azalok beztuta
 mamiok iharrik
 gaurko lotsak ez luke
 orduan indarrik,
 ipurdi-bularrik
 ez bait da zatarrik,
 azpiak bakarrik...
 ez genuke luzeko
 trapu beharrik!

VIII

Gorputzak hain dotore
 jartzen direnean
 atsegingarri dira
 aldamenean.
 Eguzki errearen
 itzalen mendean
 gogotikan ekingo
 dugu edanean,
 eta egonean
 gizenduenean
 berriro lanean
 jinasia pasiba
 deritzanean.

IX

Tropikoan lauzpabost
 astetan gorako
 lanik ez da egiten
 poltsikorako.
 Euskal Herrian ere
 jar bedi modako
 hartara Aurrezki Kutxa
 sobran dagolako:
 zerbait ahorako
 nahiz parrandarako
 badaukagu, bapo!
 lana egin ondoren
 ganorabako.

X

Beste aldakuntza bat
 badakar beroak
 gorde ezin direlako
 bi panderoak.
 Berritu behar dira
 apaiz jeneroak,
 datozela kanpotik
 misioneroak
 seksuzko kredoak
 askoz libregoak
 dituzten kleroak:
 sotanarrik gabeko
 parranderoak!

XI

Umeak eskolara
 joan behar eta
 horren arduradunak
 jar beza arreta.
 Zertarako autobus,
 kotxe eta puineta,
 euri egin ezean
 alperrik daude-ta?
 Harturik maleta
 izerdiz beteta
 eskola da meta...
 korrikatik datorke
 gazte atleta.

XII

Andereñoek ere
 klimaren fabore
 behingoz behar lukete
 eman amore:
 zertan jantzi hain zurrun,
 ilun eta more?
 nork du eskolan behar
 den hainbat umore?
 Kolorin-kolore
 pitxi eta lore
 gona motzak hobe,
 atzeak astinduta
 zeinen dotore!



XIII

Tropikal bihurtzeak
hausten du dilema
berton jatorrak nortzuk
ote direna:
azalak erakusten
bait du garbiena
tropikoan kanpotar
gisa dabilena
botorik gehiena
baldin bada haiena
ditzagun aiena
heurak turistatzen joz
geu indijena!

XIV

Euskadi tropikala
ez bada lhautu
independentziara
daramaguke.
Deus ez bagara arrazaz
deus ez ele truke,
eguzkitan beztuta
frogafuko nuke
azala bertute
bakartzat badute,
ez-mus-ta-ez-tute
morenotan sinetsi
behar digute!



Egilea: J. M. MENDIZABAL
Maila: IV. MAILA (NAGUSIEN MAILA)

XV

Gure etorkizunean
arintzeko zama
entzun musikarekin
dudan programa:
lantza eta eskudoz
mutil edo dama
erten kalera eta
uztagun jo-ta-ma!
euskal erreklama
ahal bagenerama
dantzatuz ntam-tamoa
manifestaziotan
zer panorama!

XVI

Esanak mantentzako
ez nabil erabe
klima ez dugulako
horren suabe
Eraman ezinean
ez al goaz grabe?
nola egingo gara
buruaren jabe?
EUSKADI goi-ta-behe
sua edo labe
bihurtzen bada be
TROPIKALA nahiago
dudarik gabe.



EGILEA:

«ELGOIBARKO IZARRA» / BERTSO-ESKOLA

BABESLEA:

ELGOIBARKO UDALA

LAGUNTZAILEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa